



Ingurumen Estrategiaren
Agiria Saila 31.zk. Martxoak

ingurumena.net

Zure esku dago



euskal udalerriak mugikortasun iraunkorraren bidean



"Euskal Udalerriak autorik gabe!"



Elkarrizketa Foru Aldekoa
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamentu foral de Kulturaren, Heziketa,
Unibertsitate eta Berrikuntza



Bizkaia Foru Aldekoa Diputación Foral de Bizkaia



Diputación Foral de Álava



Araba Foru Aldekoa



EVE Ente Vasco de la Energía

Municipios vascos adheridos a la campaña europea "La ciudad, sin mi coche" 2003



euskal udalerriak mugikortasun
iraunkorraren bidean

2003

"Euskal Udalerriak autorik gabe!"



Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- **1.zk. 2000ko Azaroa.** “Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa”
- **2.zk. 2001eko Maiatza.** “2001 Ekobarometro Soziala”
- **3.zk. 2001eko Urria.** “Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena”
- **4.zk. 2002ko Urtarrila.** “Garapen jasangarrirako Europako Batasunaren estrategia”
- **5.zk. 2002ko Otsaila.** “Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa” (Laburpena)
- **6.zk. 2002ko Apirila.** “Bizikletan,kerik gabeko hiritarantz”
- **7.zk. 2002ko Maiatza.** “Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia. BMG 2002”
- **8.zk. 2002ko Uztaila.** “Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak”
- **9.zk. 2002ko Abuztua.** “Sustainable Development in The Basque Country”
- **10.zk. 2002ko Urria.** “Ingurumen Adierazleak, 2002”
- **11.zk. 2002ko Azaroa.** “Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000”
- **12.zk. 2002ko Azaroa.** “Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan”
- **13.zk. 2002ko Abendua.** “2002ko Industria Ekobarometroa”
- **14.zk. 2003ko Urtarrila.** “Hiria, haurrak eta mugikortasuna”
- **15.zk. 2003ko Urtarrila.** “Klima-aldaketa”
- **16.zk. 2003ko Urtarrila.** “Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida” (CEIDA)
- **17.zk.2003ko Otsaila.** “Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa”
- **18.zk. 2003ko Otsaila.** “Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian”
- **19.zk. 2003ko Apirila.** “Garapen Jasangarriari buruzko Johannesburg-eko Nazioarteko Goi-bilera”
- **20.zk. 2003ko Maiatza.** “Euskal Autonomia Erkidegoan Tokiko Jasangarritasunaren Adierazleak Kalkulatzeko Gida Metodologikoa. Tokiko Agenda 21-eko Adierazleak”
- **21.zk. 2003ko Maiatza.** “Ekoeraginkortasuna 2003”
- **22.zk. 2003ko Maiatza.** “Hirien plangintzan aplikatu beharre o jasangarritasun-irizpideak”
- **23.zk. 2003ko Uztaila.** “Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan (1990-2001)”
- **24.zk. 2003ko Iraila.** “Energia eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2003”
- **25.zk. 2003ko Uztaila.** “Zementuaren sektorearen ingurumen-ekarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Jasangarriari (2003-2006)”
- **26.zk. 2003ko Uztaila.** “Sektore Kimikoko enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena 2003-2006”
- **27.zk. 2003ko Urria.** “Altzairugintza Sektoreko Enpresek Garapen Jasangarriari egiten dioten Ingurumen-ekarpena (2003-2006)”
- **28.zk. 2003ko Azaroa.** “Euskal Autonomia Erkidegoko 2003ko Ingurumen Adierazleak”
- **29.zk. 2004ko Otsaila.** “2002 Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan”
- **30.zk. 2004ko Martxoa.** “2004ko Ekobarometro Soziala”
- **31.zk. 2004ko Martxoa.** “Euskal Udalerriak autorik gabe 2003. Euskal Udalerriak Mugikortasun Iraunkorraren Bidean”



www.ingurumena.net/udala

Tokiko Iraunkortasuna lortzeko bidean Euskal Autonomia Erkidegoan

www.ingurumena.net

Gure Herriko Garapen Iraunkorraren inguruko Eusko Jaurlaritzaren orria

Sailburuaren Aurkezpena

2003an, “*Herrian, autorik gabe*” Europako kanpaina zela eta, Euskal Autonomi Erkidegoko administrazio publikoak pauso handi bat eman zuen ingurumen-arloan; izan ere, ekitaldi ugari antolatu ziren ingurumen-arazoei buruz herritarrak sensibilizatzeko eta haiek konpontzearen herritarren parte hartzea sustatzeko. 2002an, Euskal Autonomia Erkidegoko lau udalerrik hartu zuten parte Europako ekimen horretan; 2003an, berriz, berrogeita hamar udalerrik baino gehiagok. EAEko udalek ez dituzte egunero egiten horrelako urrats handiak. Hori dela eta, memoria honetaz baliatu nahi dut 2003ko edizioan parte hartu duzuen udalerrri guztioi zorionak eta eskerrak publikoki emateko.

Zorionak denoi!

Kanpaina koordinatzea eta parte hartu zuten udalerriei laguntza ematea egokitu zitzaigun Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko arduradunoi IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bidez. Esan ohi den bezala, datorren urtean gehiago eta hobeto. Horixe da gure asmoa.

Izan ere, ‘garraioa eta mugikortasuna’ funtsezko gaia da gure herrian garapen iraunkorra lortzeko. Horixe da, zalantzarik gabe, ingurumen-arloan dugun hutsune handiena, eta ez dirudi egoerak hobera egingo duenik, okerrera egingo da, akaso.

Euskal Autonomia Erkidegoaren hazkunde ekonomikoa lotuta egon da, hamarkada askoan, garraioaren hazkundearekin eta ingurumenean eta osasunean alboko eragin negatiboak

kontuan hartzen ez dituen lurralde-ereduarekin. Gaur egun ditugun mugikortasun-ohiturak ez dira batere iraunkorrak; automobila gehiegi erabiltzen da, eta hori da, hain zuzen ere, gure herri eta hirietako ingurumen-degradazioa eragiten duen faktore nagusietako bat.

2002-2020ko Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren lehentasuna da lurralde-oreka lortzea eta mugikortasun iraunkorraren bidean aurrera egitea. Lurralde orekatu eta irisgarriago bat finkatu behar dugu, interes orokorreko gizarte- eta ekonomia-jarduerak bideratzeko aukera emango duena, landa-, hiri- eta kosta-eremuetako ondarea, aldaerak, aberastasuna eta erakargarritasun naturala eta kulturala gordezarekin batera.

Bide horretan aurrera egin nahi badugu, funtsezkoa da eragile eta instituzio-maila guztiek ingurumena errespetatuko duen mugikortasun-eredu bat bultzatzea. Gizartea gehiago sensibilizatu behar da, mugikortasun-ohiturak aldatu eta, horrenbestez, automobila gehiegi erabiltzeagatik sortutako poluzioa eta energia-baliabideen kontsumoa murriz daitezzen.

“*Herrian, autorik gabe*” urrats berri bat da mugikortasun-eredu iraunkorragoa duen herria izateko eta, finean, bizi-kalitate hobea lortzeko egin behar dugun bidean. Eta hori guztion esku dago. Zure esku dago.




Sabin Intxaurre

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburua

“Euskal Udalerriak autorik gabe!” 2003





Aurkibidea

Sarrera

5

4

“*Herrian, autorik gabe*” kanpainarekin bat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak:

a	100.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrriak	7
b	10.000-100.000 biztanle dituzten udalerrriak	13
c	10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak	21
d	“ <i>Herrian, autorik gabe</i> ” eskualde mailan antolatu duten udalerrriak	29

“*Herrian, autorik gabe*” antolatzeko egin daitezkeen jarduerak 35

Udal harremanak “*Herrian, autorik gabe*” 38



Sarrera



Dokumentu honetan, iazko irailaren 22an “*Herrian, autorik gabe*” jardunaldian parte hartu zuten udalerriek gauzatutako ekimen nagusiak biltzen dira, baita horien balorazioak ere.

Jarduera horiek aurkeztu baino lehen, ekimenaren jatorriaren azalpen laburra egingo dugu, baita ekimenaren helburuak eta Euskal Autonomia Erkidegoan aurreko eguna nola antolatu zen azaldu ere.

Ekimenaren jatorria

Ekimena Frantzia hasi zen 1998an esperientzia pilotu gisa; 35 hiri frantsesek hartu zuten parte. Garraioak ingurumenean eragiten duen inpaktua frogatzea eta urteroko ekimen baten bidez mugikortasunaren inguruko aukera berriak bilatzea zituen helburu.

Europar, 2000n bultzatu zuen lehen aldiz proiektua Europako Ingurumen-Komisario *Margot Walström*-ek. Gaur egun, Europa osoan zabaldu da.

2003an, Europako 1.035 udalerrikin egin zuten bat kanpainarekin eta, guztira, 1.488 udalerri hartu zuten parte. Estatu espainiarrean, 240 udalerririk atxiki zitzaizkion ekimenari; horietako 52 Euskal Autonomia Erkidegokoak ziren, alegia, % 21.

Gainera, Europatik kanpoko gero eta herrialde gehiagok egiten dute bat ekimen honekin, hala nola Argentina, Brasil, Kanada, Kolonbia, Taiwan, etab.

Mugikortasunaren Astea

2003an, ekimena astebetekoa izateko aukera eman zen, Europako Mugikortasunaren Astea; eta “*Irisgarritasuna*” izan zuen ardatz. Hala, egunero landu ziren garapen iraunkorarekin eta irisgarritasunarekin lotutako hainbat alderdi.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hainbat udalerri ospatu zuten Mugikortasunaren Astea: Gasteiz, Barakaldo, Donostia eta Arratia Mankomunitateko udalerririk.

2004an, Mugikortasunaren Astearen ardatz nagusia “*Kaleak haurrentzat*” izango da. Helburua: udalerrietako kaleak haurrentzat seguruagoak izatea eta mugikortasun iraunkorra bultzatzea.

“Euskal Udalerriak autorik gabe!” 2003





“Herrian, autorik gabe” ekimenaren helburuak

“Herrian, autorik gabe” Europako ekimenaren xede nagusiak hauek dira:

- Hiri eta herrietan automobilak zentzurik gabe erabiltzeak eragiten dituen poluzioaren eta energia-baliabideen kontsumoaren inguruko sentsibilitatea areagotzea.
- Nire autorik gabeko herriak dituen ingurumen-onurak egiaztatzea eta oinez, bizikletan eta garraio-bide publikoetan ibiltzea gaur egungo hiri-mugikortasunaren ohituren ordezkoko egokiak direla baieztatzea.
- Plan eta garraio-sistema berriak garatzeko esku hartzen duten eragile guztien arteko elkarriketa sustatzea.

“Euskal Udalerriak autorik gabe”

Euskal Autonomia Erkidegoko 52 udalerri (1.350.000 biztanle guztira) hartu zuten parte irailaren 22an “Herrian, autorik gabe” 2003 Europako egunean. Hala, udalerri horietan guztietan gozatu ahal izan zen hiriguneaz, automobilerik sarrera mugatuta baitzuten, eta udalek antolatutako jardueretan parte hartu ahal izan zen. Dokumentu honetan, antolatutako jarduerak nagusiak eta udalerriek lortutako emaitzak aurkezten dira.


Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren laguntzaz, koordinatu zuen kanpaina hori Euskal Autonomia Erkidegoan, 2003an. Halaber, udalerriek bat egitea sustatu zuten, finantza partaidetza, aholkularitza tekniko eta komunikazio-materiala emanez.

Finantza partaidetzak udaleko 6.000-12.000 eurokoak izan ziren, eta udalerrietan “Euskal Udalerriak autorik gabe!” kanpainari buruzko 360.000 triptiko, 360.000 bereizle eta 5.500 poster banatu ziren.

Gainera, udalerrietan, eragile ugari hartu zuten parte kanpaina koordinatzen eta gauzatzen: zikloturista-elkarteak, emakume-elkarteak, gimnasioak, udaltzaingoa, autobus-konpainiak, Ertzaintza, osasun-zerbitzuak, eskolak, etab.

Hona hemen udalek jardunaldi horretarako bultzatu zituzten jarduerak garrantzitsuenak udalerrien tamainaren arabera taldekatuta: 100.000 biztanle baino gehiagokoak, 10.000-100.000 biztanlekoak, 10.000 biztanle baino gutxiagokoak eta jardunaldia eskualde mailan antolatu zutenak.

2003an parte hartu duten udalerriak: Alonsotegi, Agurain, Amurrio, Andoain, Anoeta, Arantzazu, Areatza, Arrasate, Arrieta, Artea, Astigarraga, Azpeitia, Bakio, Balmaseda, Barakaldo, Beasain, Bilbo, Deba, Derio, Dima, Donostia, Eibar, Elgoibar, Ermua, Fruiz, Gamiz-Fika, Gasteiz, Gatika, Getxo, Gordexola, Igorre, Laudio, Laukiz, Legazpi, Lekeitio, Lemoa, Mallabia, Maruri-Jatabe, Mendaro, Meñaka, Mungia, Muskiz, Mutriku, Oiartzun, Portugalete, Sestao, Sondika, Sorluze, Tolosa, Usurbil, Zarautz, Zeanuri.



“Herrian, autorik gabe” kanpainarekin bat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak

a

100.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriak

- Bilbo
- Donostia
- Gasteiz





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean



Bilbo

Jarduera Nagusiak

Informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa

- Kanpaina auzoetan, hiriko zentroetan, ikastetxeetan eta saltokietan zabaldu, irailaren 22aren aurreko asteetan (Gasteiz).
- *Spinning*-ikuskizunak, udalerriko gimnasioen laguntzarekin (Bilbo).
- Haurrentzako zirkulazio-parkea, motor elektrikoentzako zirkuituekin, zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arauak ulerrarazteko (Gasteiz).
- Bide-hezkuntzako jolasak (Donostia).
- Hiriko autobusen geltoki nagusietan tulipa-erraboilak banatu; horiek sartzeko hiruki-formako euskarrian, garraiobide horren erabilerari buruzko informazioa eta datu garrantzitsuak ipini ziren (Gasteiz).
- “*Herrian, autorik gabe*” leloa duten bonobus-zorroak banatu (Donostia).
- Haur-parkea tailerrekin eta kaleko jolasekin (Bilbo, Donostia eta Gasteiz).
- Informazio-standa: herritarrek iritzia emateko eta informazioa emateko gunean, herritarren parte-hartzea bultzatzen zen hobekuntza-proposamenen bidez (Gasteiz).
- Haur-jarduerak: puzgarriak, tailerrak, eskalada-murrua eta zirkulazioari eta mugikortasunari buruzko jolas pedagogikoak (Bilbo).
- Eskola-umeentzako jarduerak: kamisetak banatu, mago baten emanaldia eta ikasleen gorputzez kanpainaren ikurrak irudikatzea, giza mosaikoa osatuz (Gasteiz).
- Jumping-a, goma elastiko bidezko jauzi-jolasa (Bilbo).
- Jardunaldiak eta hitzaldiak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz).
- Hiri mugikortasun buruzko inkestak, haurrei eta helduei zuzendutak (Gasteiz).

Donostia



Mugikortasun Iraunkorra Sustatu

- Behin-behineko bidegorri bat prestatzea, bizikletei hiriguneko eremu mugatuetatik bidegorri iraunkorretaraino iristen laguntzeko (Bilbo).
- Autobus-lineak % 40 indartzea (Donostia).
- Ibilgailuen diagnostiko-tailerra, poluzioa eta aurrez daitekeen energia neurtzeko (Bilbo).
- Ibilbide pedagogikoa simulazio-betaurrekoekin, gurpildun aukiekin eta abarrekin, askotariko ingurune eta maldatan, eta autobus batean, herritarrek ikus dezaten minusbaliatuek hirian ibiltzeko dituzten zailtasunak. Halaber, minusbaliatuentzat egokitutako automobil bat ipini zen (Donostia).
- Bidegorrietan, ibilbide gidatuak taldeentzat (Bilbo).
- Bizikleta-martxa (Bilbo, Donostia eta Gasteiz).
- Ziklistentzako autobusak (Donostia).
- Hirigunean bizikletak, patinak eta patineteak alokatzeko zerbitzua (Bilbo).
- Ziklistentzako gosaria Kalapierekin eta galtzak biltzeko uztaia banatu (Donostia).
- "OKA" Oinez, *biziKletaz*, *pAtinez*: ibilbidea oinez, *patinetan* edo bizikletan. Antzara-joko edo proba-joko antzeko bat da, taldeka egitekoa; dadoekin txandaka aurrera egin eta probak gainditu behar ziren (Donostia).
- Udaleko eta Bizkaiko Foru Aldundiko web orrien bidez automobila partekatzeko zerbitzua (Bilbo).



Gasteiz

"Euskal Udalerriak autorik gabe!" 2003





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean

Hedapen-kanpaina

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta IHOBE, S.A.k emandako materiala zabaltzeaz gain, udalerriek tokiko egoerari egokitutako komunikazio-kanpainak egin zituzten eta bere materiala diseinatu zuten.


10





Emaitzak

- ✓ Zirkulazioa % 18 jaitsi zen (Gasteiz).
- ✓ Garraiobide Publikoetan % 5,17 erabiltzaile gehiago izan zen (Gasteiz).
- ✓ Partikula-emisioa % 14 eta zarata % 16 gutxitu ziren (Gasteiz).
- ✓ Oso harrera ona egin zioten kanpainari atxikitako 1.218 saltokiak (Gasteiz).
- ✓ Mugikortasun iraunkorrarekin konpromisoa hartu duten 2.400 herritarren sinadurak (Gasteiz).
- ✓ Herritarren parte-hartzearen balorazio positiboa (auzoetan, hiriko zentroetan eta ikastetxeetan) (Gasteiz).
- ✓ Oinezkoentzako 2 kontrolgunetan hartutako datuen arabera, % 150 pertsona gehiago mugitu ziren oinez (Donostia).
- ✓ Ziklistentzako 4 kontrolgunetan hartutako datuen arabera, Kontxako pasealekuan egun arrunt batean baino % 10 gehiago ibili zen bizikletan (Donostia).
- ✓ Irailaren 22an % 12 bidaia-txartel gehiago saldu ziren autobus-linea guztietan (Donostia).
- ✓ Herritarren % 77k bazuen neurrien berri 21a baino lehen, eta % 80k uste du ekimena egokia dela eta automobilen protagonismoa murriztu behar dela (Donostia).
- ✓ Ibilgailuen zirkulazioa murriztu egin zen aztertutako hiriko 5 gunetan (Donostia).



- ✓ Zirkulazioa % 7 gutxitu zen hiriko sarbideetan (Bilbo).
- ✓ Garraiobide publikoen erabilera dezente handitu zen: % 5 Bilbo barneko autobusetan, % 17 Euskotrenen, % 8 metroan eta % 74,6 tranbian (Bilbo).
- ✓ Ziklista-kopurua % 270 hazi zen eta oinezkoen kopurua % 6 (Bilbo).
- ✓ % 59 jaitsi zen NO₂-aren emisioa, % 63 CO₂-arena eta % 68 zarata (Bilbo).





Udalerriek Garapen Iraunkorrerako onartu dituzten behin betirako ekimenak

12

Bilbo

- Eremuak oinezkoentzat prestatzea asteko egun guztietan.
- Bidegorriak.
- Bizikleta-aparkalekuak.
- Garraio publikoaren linea berriak.
- Garraiobideen lineak maizago ezartzea.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Autoan beste batzuekin.

Donostia

- Bizikleta-bidea Santa Katalina zubian.
- Bizikleta-aparkalekuak.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.
- Ikasleentzako mugikortasunari buruzko bide-
-hezkuntza: "Eskolako bidea kanpaina".
- Udal-ordenantzak: oinezkoak eta ibilgailuak.
- Hiriko irisgarritasun-plana.

Gasteiz

- Tornu kalea oinezkoentzat jartzea.
- Hiri osoan bizikletentzako 45 aparkaleku ezartzea.
- Hiriko tranbia berriaren proiektua egitea.
- Erdi Aroko Hirigune Historikoan autobus-linea berria martxan jartzea.
- 14. lineako autobusen maiztasuna areagotzea (Donostia kalea).
- Hiriko autobusen % 74 zoru baxukoak izatea.
- Oinezkoentzako 28 pasagune goratu ezartzea.
- Erdi Aroko Hirigune Historikoko pasoko zirkulazioa eragozte.
- Hirian bizikletaz ibiltzeko ibilbide seguruak markatzen dituen plano egitea.
- Eskola-umeentzako bide-hezkuntzako urteko kanpaina.
- Pixkanaka semaforo akustikoak jartzeko plana.
- Oinezkoentzako pasaguneak behertzeko plana, mugikortasun murrizta duten pertsonei egokitzeko.
- Taxiaren erabilera arautzeko ordenantza.
- Oinezkoentzako eremuen erabilera arautzeko ordenantzaren proiektua.



“Herrian, autorik gabe” kanpainarekin bat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak

b

10.000-100.000 biztanle dituzten udalerriak

- Andoain
- Arrasate
- Azpeitia
- Barakaldo
- Beasain
- Getxo
- Laudio
- Mungia
- Portugalete
- Sestao
- Tolosa
- Zarautz





euskal udalerririk mugikortasun
iraunkorren bidean

Jarduera Nagusiak

Informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa

- Gazteentzako jolas- eta heziketa-jarduerak: haur-parkeak, puzgarriak, tailerrak, antzerkiak, eskalada-murruak, tiroli-
na, etab. (Arrasate, Azpeitia, Barakaldo, Getxo, Laudio, Mungia, Tolosa eta Zarautz).
- “*Herrian, autorik gabe*” jardunaldia eta haurrentzako jaialdia Herriko Plazan ospatu (Barakaldo).
- Eskolako lan-orri bat egin eta eskola-umeei bide-heziketari buruzko agendak banatu, osasunarekin eta ingurumenare-
kin erantzukizun handiagoko ohiturak transmititzeko (Portugaleta).
- Iradokizun-postontzi bat ipini (Azpeitia).
- *Ginkana*: monitore-talde batek bizikletekin eta oinez egiteko hainbat jolas eta trebetasun-proba dinamizatu (Zarautz).
- Loreak herrian (plazako zuhaitzak loreen marrazkiekin apaindu ziren) eta gazteentzako tailer eta jolasak (eskulanak,
saskigintza, lorezaintza) (Azpeitia).
- Udaltzaingoaren bide-segurtasuneko sailaren materialaren erakusketa (Zarautz).
- Eskualdeko bidaiarien garraiobide publikoetako emakidadun enpresen eta Foru Aldundiaren Garraio Sailaren lagun-
tza eskatu (Barakaldo).
- Udalerriko Tokiko Agenda 21en logotipoa duten kamisetak banatu, martxa zikloturistako parte-hartzaileen artean
hainbat opari zozketatu: 4 bizikleta, kirol-materiala erosteko 100 €-ko 6 txartel, etab. (Laudio).

14

Arrasate



Getxo



Azpeitia



- Joan-etorriak Poneyan eta patinetan (Getxo).
- Mugikortasunari buruzko datuen erakusketa, zirkulazioari, akustikari eta abarri buruzko informazio-panelekin. (Arrasate, Tolosa).
- Nekazaritza Ekologikoko Feria (Mungia).
- Herri-kirolak (Getxo).
- Sentsibilizazioa ikastetxeetan, jardunaldiaren aurreko astean (Zarautz).
- Ibilgailu pribatuen ordezkotako garraiobide alternatiboak enpresetan sustatzeko informazio-kartelak (Azpeitia).
- Garraioari eta ingurumenari buruzko hitzaldia (Beasain).
- “*Herrian, autorik gabe!*” jardunaldiari buruzko iritziak biltzeko inkesta (Getxo).
- 8-12 urteko haurrentzako tailerra, mugitzeko eguzki-energia erabiltzen duten autoak egiteko (Zarautz).
- “*Etxetik eskolara*” gaiari buruzko marrazki-lehiaketa ikastetxeetan (Mungia).



Laudio



Mungia





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorraren bidean

Mugikortasun iraunkorra sustatu

- Garraibide publikoetan bidaia bat doan egiteko bonua duten triptikoak banatu (Beasain, Portugaleta).
- Bizikletak uzteko eta babesteko gailuak ezarri ziklisten zirkuituetan eta hirigunean (Barakaldo).
- Bizikleta-martxa eta material-banaketa (Azpeitia, Getxo, Laudio, Tolosa, Zarautz).
- Hiri-zirkuitua patinetan eta bizikletan aritzeko (Mungia).
- *Txu-txu* trenna (Getxo, Zarautz).
- Garraibideak doan egun osoan (Arrasate, Tolosa).
- Autobusa doan industriaguneetaraino (Azpeitia).
- Herri-autobusa maizago izan; maiztasuna bikoiztu egin zen (Arrasate).
- Bizikletentzako oinarrizko mantentze-lanak egiten ikasteko tailerrak (Mungia).
- Eskola-umeen oinezko ibilaldia (Azpeitia, Laudio, Mungia)
- Eskola-umeentzako bizikleta-proba (Laudio).
- Haurren ibilaldia Regatoko Bide Berdetik (Barakaldo).
- Bizikleta bat zozketatu (Getxo).

16



Tolosa



Zarautz





10.000-100.000 biztanle dituzten udalerriak

"Euskal Udalerriak autorik gabe!" 2003



Hedapen-kanpaina

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta IHOBE, S.A.k emandako materiala zabaltzeaz gain, udalerriek tokiko egoerari ego-
kitutako komunikazio-kanpainak egin zituzten eta material propioak diseinatu zituzten.



17





Emaitzak

- ✓ Asko jaitsi zen zirkulazioa hiriko sarbideetan eta 3,3 dezibelerraino jaitsi zen zarata ibilgailuentzako zirkulazioa debekatutako kaleetan (Barakaldo).
- ✓ “Herriarrek badute jardunaldiaren berri (% 90). Batzuek parte hartu zuten, beste batzuek, aldekoak izan arren, ez zuten parte hartu eta beste batzuk, berriz, jardueraren kontrakoak dira. Baina gehienek badute jardunaldiaren berri, eta, hortaz, eztabaida sortu da eta bizirik mantendu beharko genuke” (Barakaldo).
- ✓ Banatutako bonuen % 15 erabili zen eta jendeak harrera ona egin zion triptikoei. Ikastetxeetan banatutako agendei harrera ona egin zieten haurrek, bai itxurari bai edukiari dagokienez (Portugaleta).
- ✓ Izugarritzko arrakasta izan zuen eguzki-energiar mugitzen ziren autotoen tailerrak. Haur-parke eta *Txu-Txu Trenera* jende ugari hurbildu zen (Zarautz).
- ✓ Jendeak ekimenaren berri zuen, herritarren jarrera ona izan zen eta jardunaldia maizago egiteko gogo nabaritu zen (Tolosa).
- ✓ Oro har, positiboki baloratu zen jardunaldia; parte-hartzaile ugari izan zen ekimen guztietan (Laudio).
- ✓ Gaztelu puzgarriek izan zuten arrakasta gehien (% 75) eta, gero, bizikletaren ekimenak (% 30). Baina, batez ere, kaleak bizikletan, patinetan, oinez, etab. ibiltzeko erabili izana nabarmendu behar da, neurtzerik ez badago ere (Getxo).
- ✓ Kaleak oinezkoentzat uzteak oso harrera ona izan zuen (Beasain).
- ✓ Garraiobide publikoak % 250 gehiago erabili ziren (Arrasate).
- ✓ Iradokizun-postontzian eskaera hauek izan ziren nagusi: garraiobideen eskaintza areagotzea, trenaren beharra eta bidegorriak eraikitzea eta Bilbora joateko zerbitzua hobetzea (Azpeitia).
- ✓ Denen iritziz, herriko plazak itxura hori izan beharko luke beti (Azpeitia).



Udalerriek Garapen Iraunkorrerako onartu dituzten behin betirako ekimenak

Andoain

- Oinezkoentzako eremu berriak.
- Bidegorri berriak.
- Muga arkitektonikoak kentzea.
- Espaloiak babesteko pibotak.

Barakaldo

- Oinezkoentzako eremua handitzea.
- Bidegorriak luzatzea.
- Bizikleta-aparkalekuak jartzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.

Arrasate

- Partzialki oinezkoentzat.
- Zirkulazio murriztua.

Beasain

- Bidegorria
- Bizikleta-aparkalekua.
- Irisgarritasun-planak.

Azpeitia

- Garraiobideen zerbitzua zabaltzea eta linea berriak jartzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.

Getxo

- Autoan beste batzuekin programa Web ofizialean.
- Bidegorri berria.





Laudio

- Erdigunea oinezkoentzat prestatzea faseka.
- Irisgarritasun-plana.
- Sakanguneak eta zebra-bide goratuak zirkulazioa mantsotzeko.

Mungia

- Bidegorriak egitea.
- Espaloiak zabaltzea oinez ibiltzea errazteko.
- Hiri-garraioaren ordutegiei eta geltokiei buruzko informazioa eta oinez ibiltzeko dauden bideei buruzko informazioa.
- Bizikleta erabiltzea sustatzea.

Portugalete

- Oinezkoentzat jartzea.
- Eremu jakinetan autoa uztea galaraztea.
- Maiztasuna handitzeko linea berria.

Tolosa

- Oinezkoentzat jartzea.
- Bizikleta-aparkalekuak.
- Irisgarritasun-planak.

Zarautz

- Bizikletan eta oinez ibiltzeko bide berriak.
- Zarata kontrolatzeko neurriak.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.



“Herrian, autorik gabe” kanpainarekin bat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak

C

10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak

- Agurain
- Alonsotegi
- Amurrio
- Anoeta
- Arrieta
- Astigarraga
- Bakio
- Balmaseda
- Derio
- Fruiz
- Gamiz-Fika
- Gatika
- Gordexola
- Laukiz
- Legazpi
- Lekeitio
- Maruri-Jatabe
- Meñaka
- Muskiz
- Oiartzun
- Sondika
- Usurbil





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean



Jarduera Nagusiak

Amurrio

Informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa

- Haurrentzako jolas- eta heziketa-jarduerak (tailerrak, txokolate-jatea, ludoteka, kale-antzerkia, ipuin-kontaketa, poneyan paseatzea) eta kale-animazioa (trikitilariak, herri-kirolak, bertsolariak) (Agurain, Alonsotegi, Amurrio, Anoeta, Arrieta, Bakio, Balmaseda, Derio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Legazpi, Maruri-Jatabe, Meñaka, Muskiz, Oiartzun, Sondika, Usurbil).
- 4 urtez hainbat herrialde zeharkatuz bizikletaz ibili den pertsona baten esperientziei buruzko hitzaldia (Anoeta).
- Bizkaiko Bizikleta Plana azaltzeko hitzaldi-elkarrizketa (Alonsotegi).
- Bide-heziketa (Derio).
- Mugikortasunari buruzko erakusketak: gaur egungo arazoen eta horien irtenbideei buruzko oinarritzko ideiekin, udalerrian bertan egindako arau-hausteen argazkiekin, ikastetxeetako ikasleek mugikortasunari edo Lurraldeko Bizikleta Plan Nagusiari buruz egindako argazkiekin (Amurrio, Balmaseda, Anoeta).
- Ikasleen gurasoei ikastetxeen bidez egindako inkesta (Astigarraga).
- Parte-hartzea sustatzeko ekintzak: herritarrek iritzia emateko kutzak edo muralak ipini (Legazpi, Balmaseda).
- Udalak informazio-standa ipini, herritarrei, merkatariei eta abarri jardunaldiari buruzko balorazioari buruzko informazioa eman eta inkesta egiteko (Muskiz, Sondika).

22

Anoeta



Legazpi



Gordexola



Arrieta



Bakio



C

10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak

Mugikortasun iraunkorra sustatu

- Haurrentzako zirkuitu bat antolatu, oztopo eta zirkulazio-seinaleekin (Amurrio, Anoeta).
- Ikasleek ikastetxerainoko bidea oinez egin, monitoreen laguntzaz, bidearen zatirik arriskutsuenak aztertu eta bide alternatiboak proposatzeko (argazki-kamerak banatu, bideko oztopo edo zailtasunak identifikatzeko) (Anoeta, Astigarraga, Bakio).
- Garraiobide publikoak erabiltzen dituztenen artean, bizikleta bat zozketatu (Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri-Jatabe).
- Herrian bizikleta-martxa egin, eta parte-hartzaileei kamisetak eta eranskailuak, bizikletarako osagaiak (kaskoak, giltzarrapoak, puzgailuak) banatu eta sariak banatu (trizikloak, patineteak, bizikletak) (Agurain, Bakio, Gatika, Gordexola, Laukiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Muskiz, Oiartzun, Sondika).
- *Txu-txu Trenean* ibili: goizez, udalerraren inguruan ibiltzeko eta, arratsaldez, hirigunea urruneko auzoetara hurbiltzeko (Legazpi).
- Bizikletak eta patineteak uzteko zaintzapeko aparkaleku bat ezarri (Legazpi, Maruri-Jatabe).
- Garraiobide publikoa (hiriko autobusa) doan egunean bertan edo aste osoan (Anoeta, Oiartzun).



Meñaka

Laukiz



Maruri-Jatabe

Sondika



Muskiz



"Euskal Udalerriak autorik gabe!" 2003





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean

Hedapen-kanpaina

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta IHOBE, S.A.k emandako materiala zabaltzeaz gain, udalerriek tokiko egoerari ego-
kitutako komunikazio-kanpainak egin zituzten eta material propioak diseinatu zituzten.

24







euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean



Emaitzak

- ✓ Haurrentzako heziketa-jardueretako parte-hartzea handia izan zen; 300 gaztek baino gehiagok hartu zuten parte udalerriko mugikortasunari buruzko argazkiak ateratzen (Amurrio).
- ✓ Parte hartzaileek oso harrera ona egin zioten zirkulazioa ixteari eta ixteak ez zien eragin gainerako herritarrei (Amurrio).
- ✓ Udalerriko mugikortasunari buruz herritarrek dituzten kezkek eta hobetzeko proposamenak detektatu dira (Astigarraga).
- ✓ Herritarrek balorazio positiboa egin dute eta parte-hartzea handia izan dela esan dute (Agurain, Alonsotegi, Arrieta, Bakio, Balmaseda, Laukiz, Maruri-Jatabe, Usurbil).
- ✓ Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Herritarren % 22k hartu zuen parte jardueretan (Fruiz).
- ✓ Guztira 350 pertsonok hartu zuten parte egunean antolatu ziren jardueretan; haurrak eta haien gurasoak izan ziren batez ere, eta 15-30 urte bitarteko gazte gutxi izan zen (Gamiz-Fika).
- ✓ Auto-gidariak kexaren bat edo beste izan zuten, zirkulazioa moztuta zegoen errepide-zatia zela eta (Gamiz-Fika).
- ✓ Udalerrian egindako bizikleta-martxa arrakastatsua, adin guztietako eta auzo guztietako 200 parte-hartzaile (herritarren % 13) (Gordexola).
- ✓ Oso harrera ona izan zuen *Txu-Txu Trenaren* ibilbideak (Legazpi).
- ✓ Herritarrek zirkulazioa eta aparkalekuak nabarmendu zituzten arazo nagusi gisa (Legazpi).
- ✓ Herritarren % 4k hartu zuen parte bizikleta-martxan. (Maruri-Jatabe).
- ✓ 130 bat pertsonok hartu zuten parte, eta balorazio positiboa egin da. Ekimen-mota hau antolatzen den lehen urtea izanik, uste baino pertsonak gehiagok hartu zuten parte (Meñaka).
- ✓ Zirkulazioa % 15 gutxitu zen eta garraio-bide publikoetako erabilzailerikopurua % 25 handitu zen (Muskiz).
- ✓ 540 bat haurrek hartu zuten parte goizeko ekintzetan, eta 50 bat pertsonok (haurrak eta gurasoak) bizikleta-martxan (Muskiz).
- ✓ 170 pertsona bizikletan udalerrian (Agurain).
- ✓ 80 pertsonok hartu zuten parte egunean zehar antolatutako ekintzetan (Arrieta).
- ✓ Inkesta egin duten pertsonen % 67,74 oinez mugitu zen normalean ibilgailuak dabiltzan kargatzeko eta deskargatzeko eremuan, eta % 73,33ren iritziz, eremu horretan maizago murriztu beharko litzateke zirkulazioa (Sondika).
- ✓ Eremu horretan bizi direnen % 67ren iritziz, ontzat edo nahiko ontzat eman dute errepideetan zirkulazioa eteteko ekimena, eta merkatarien % 67k ontzat eman dute (Sondika).
- ✓ 800 ikasle inguruk bat egin zuten zirkulazioarekin eta mugikortasunarekin zerikusia duten tailer eta jolasetan (Oiartzun).



Udalerriek Garapen Iraunkorrerako onartu dituzten behin betirako ekimenak

Agurain

- Oinezkoentzako eremuak asteburuetan eta jai-egunetan.
- Alde zaharrean aparkalekuak murriztea.

Alonsotegi

- Oinezkoentzako pasealekua eraikitzea.
- Eremu jakinetan autoa uztea galaraztea.
- Kale batzuetan zirkulazioa berrantolatzea.

Amurrio

- Oinezkoentzako eremua.
- Bidegorria.
- Disuasio-aparkaleku berriak.
- Bide-heziketa.
- Mugikortasun-plana.
- Irisgarritasun-plana.

Anoeta

- Zirkulazioa mantentzeko neurriak.

Arrieta

- Bizikleta-aparkalekuak.
- Eremu jakinetan autoa uztea galaraztea.

Astigarraga

- Bide-segurtasuna: ikastetxeetara eta udaleko gainerako ekipamenduetara iristeko bide seguru bat egin nahi da.

Bakio

- Irisgarritasun-plana.
- Bidegorria egitea.
- Bizikleta-aparkalekuak.

Balmaseda

- Hirigune Historikoan asteburu eta jaiegunetan zirkulazioa etetea.
- Bizikletentzako aparkalekuak igerilekuen inguruan.
- Zirkulaziorik ez dagoen kaleei eta urte-garaiaren arabera jende-oldeari erantzun emateko disuasio-aparkalekuak.
- Bizkaibusaren lineak zabaltzea.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Irisgarritasun-plana.



Fruiz

- 3 bizikleta-aparkaleku jartzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.

Gamiz-Fika

- Bizikleta-aparkalekuak udalerriko bi tokitan ezartzea.

Gatika

- Bizikleta-aparkalekuak.
- Oinezkoentzako bideak.
- Garraio publikoaren linea berriak/ zabalkuntza.

Gordexola

- Bizikleta-aparkalekuak jartzea.

Laukiz

- Bizikleta-aparkaleku kopurua eta disuasio-aparkalekuetako plaza-kopurua handitu dira.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Bide-Segurtasuna.

Legazpi

- Udaletxearen eta elizaren arteko eremua oinezkoentzat jarri da.

Maruri-Jatabe

- Bizikleta-aparkalekuak.
- Disuasio-aparkalekuak.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Autoan beste batzuekin: lanera joateko automobila partekatze zerrenda ireki da.

Meñaka

- Lau bizikleta-aparkaleku jartzea.

Muskiz

- Muskizko kale bat partzialki oinezkoentzat prestatzea.
- Bizikletan eta oinez ibiltzeko bideak.
- Bizikleta-aparkalekuak.
- Autobusen ordutegiak zabaltzea eta linea bat tren-geltokiraino ezartzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Autoan beste batzuekin.

Oiartzun

- Donextebe plaza oinezkoentzat.
- Autoeskolak eta Udaltzaingoak antolatuta, bide-hezkuntzako ikastaroak ikastetxeetan.

Sondika

- Mugikortasun-plana.
- Udal-ikuskapenak egiteko, bizikleta emango zaie udaleko zerbitzu teknikoei.
- Eremu mugatua oinezkoentzako bihurtzeko, aparkaleku berri bat egiteko zenbait aukera aztertuko dira.

Usurbil

- Hirigune historikoa oinezkoentzako (asteburuetan eta jai-egunetan) .
- Oinezkoentzako eta bizikletentzako bide berriak.
- Autobusen ordutegiak zabaltzea eta linea bat tren-geltokiraino jartzea.
- Bizikleta-aparkalekuak eta disuasio-aparkalekuak sortzea.
- Irisgarritasun-planak.

“Herrian, autorik gabe” kanpainarekin bat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien jarduera nagusiak eta lortutako emaitzak

d

“Herrian, autorik gabe” eskualde mailan antolatu duten udalerriak

Arratia:

- Arantzazu
- Areatza
- Artea
- Dima
- Igorre
- Lemoa
- Zeanuri

Debabarrena:

- Deba
- Eibar
- Ermua
- Elgoibar
- Mallabia
- Mendaro
- Mutriku
- Sorluze





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorraren bidean

Debabarrena eta Arratian eskualde mailan ospatu zuten “*Herrian, autorik gabe*” Europako jardunaldia. Askotan, jarduerak udalerrri batean baino gehiagotan egitekoak ziren.



Arratia

Jarduera Nagusiak

ARRATIA

- Bizkaiko Bizikletaren Plan Nagusiaren eta Arratiako bidegorriaren proiektuaren erakusketa, Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio Sailarekin koordinatuta.
- “*Bizkaiko Bizikletaren Plana eta Arratiako ardatza*” gaiari buruzko hitzaldia eta eztabaida (Areatza).
- “*Hiri-inguruneetako mugikortasuna eta ingurumena*” gaiari buruzko hitzaldia eta eztabaida (Igorre).
- Bizikletaren erabileraren inguruan sentsibilizatzeko bizikleta-martxa, eskualde osoan zehar. Bi ibilbide: haurrentzat eta helduentzat. Martxaren amaieran kamisetak oparitu ziren (Arratia).
- Amaierako jaia goizean zehar, musikarekin eta kaleko animazioarekin (Igorre).
- Bizkaibusa doan. Arratia eskualdean dabilzan autobus-lineetako erabiltzaileei Creditrans-en txartel arruntak balio duen zenbatekoa itzuli zitzaientzen (Arratia).
- Oinezkoentzako eremuak eta oinezkoentzako eta bizikletentzako gune konbinatuak prestatu ziren (Arratia).

DEBABARRENA

- Bizikleta-martxa. Anoa-postuak zeuden erdibidean eta ibilbidearen amaieran: parte-hartzaile guztientzako dutxak, etxera itzuli ahal izateko bi autobus eta bizikletak parte-hartzaileen udalerrietara eramateko kamioi bat ezarri ziren (Debabarrena).
- Parte-hartzaileen artean maillotak zozketatu ziren (Debabarrena).
- Garraiobide publikoz Debabarrenetik abiatuta edo Debabarrenera joateko egindako bidaietan % 50 ordaintzea (Debabarrena).
- Udalbusa doan (Eibar).



Debabarrena





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean

Hedapen-kanpaina

Arratian eta Debabarrenean eskualde mailako komunikazio-materiala zabaldu zen (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak eta IHOBE, S.A.k emandako materialaz gain), eta jardunaldiari buruzko komunikazio-kanpainak egin ziren.



Emaitzak

- ✓ Hitzaldietan eta erakusketan espero baino parte-hartzaile gutxiago izan zen, publizitate ugari egin arren (Arratia).
- ✓ Bizikleta-martxa asteko ekitaldirik arrakastatsuen eta entzutetsuen izan zen (Arratia).
- ✓ Bizikleta-martxak ezarritako helburuak gainditu zituen (Debarrena).
- ✓ Bidaia-txartelaren % 50 itzultzeko ekimenak ez zuen harrera handirik izan. Izan ere, segur aski, ibilbide motzak zirelako zenbateko txikiak izanik, ez da nahikoa pizgarri izan udaletara hurbildu eta diru-kopurua jasotzeko (Debarrena).



"Euskal Udalerriak autorik gabe!" 2003



Udalerriek Garapen Iraunkorrerako onartu dituzten behin betirako ekimenak

Arratia

Artea

- Eremuak oinezkoentzat prestatzea asteko egun guztietan.
- Bidegorriak.
- Oinezkoentzako bideak.
- Eremu jakinetan autoa uztea galaraztea.
- Autobus-lineak tren-geltokiraino.
- Erregai alternatiboak (gas naturala, erregai ekologikoak, etab.) erabiltzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Ikastetxeetako ikasleentzako bide- eta mugikortasun-hezkuntza.
- Mugikortasun iraunkorra erregulatzeko udal-ordenantzak.
- Irisgarritasun-planak.

Areatza

- Eremuak oinezkoentzat prestatzea asteko egun guztietan.
- Zirkulazio murrizteko oinezkoentzako bideak.
- Oinezkoentzako bideak.
- Bizikleta-aparkalekuak.
- Disuasio-aparkalekuak.
- Erregai alternatiboak (gas naturala, erregai ekologikoak, etab.) erabiltzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.
- Informazioa zabaltzeko web orriak eta zerbitzuak.
- Irisgarritasun-planak.

Lemoa

- Bidegorriak.
- Oinezkoentzako bideak.
- Disuasio-aparkalekuak.
- Garraibide publikoaren maiztasuna areagotzea eta linea berriak jartzea.
- Zirkulazioa mantsotzeko neurriak.
- Mugikortasun iraunkorra erregulatzeko udal-ordenantzak.
- Irisgarritasun-planak.

Debabarrena

Deba

- Igoailu publikoa eta eskailera mekanikoak.

Eibar

- Eskailera mekaniko bidezko sarbide-plana.
- Oinezkoentzako pasealekua eraikitzea.
- Hirigunea oinezkoentzako uztea, asteburuetan.
- Udalbusean eta Taxibusean inbertitzea (Udalbusa iristen ez den auzoetarainoko udaleko hiri-garraioa).

Ermua

- Kaleak oinezkoentzat prestatzea.
- Arrapala mekanikoa.

Mutriku

- Igoailuei eta eskailera mekanikoei buruzko azterketa.
- Autobusen lineak trenen lineekin egokitzea (ordutegiak).

Soraluze

- Oinezkoentzako eremuak asteburuetan eta jai-egunetan .
- Bidegorriak.



"H

errian, autorik gabe" antolatzeko egin daitezkeen jarduerak

"Herrian, autorik gabe" Jardunaldian egin daitezkeen ekintzak

Ondoren, "Herrian, autorik gabe" Europako jardunaldia antolatzeko egin daitezkeen hainbat jarduera aurkezten dira; horietako batzuk dokumentu honetan azaldutako adibideetan ikusi ditugu.

Garraiobide publikoa

- Garraiobide publikoei buruzko informazioa erraz eskuratzeko moduko formatuetan ematea.
- Autobus- eta tren-ordutegiak formatu handian eta erraz irakurtzeko moduan egitea.
- Emankizun berezietarako "denak batean" txartela sortzea.
- Ordu gorietan, bizikletak autobusetan eramaten uztea.
- Bizikletetarako bagaje-toki berriak probatzea eta, aldi berean, bultzatzea jendeak bizikleta erabil dezala beste garraiobide publikoekin lotura egiteko.
- Autobus- edo tren-geltokietan bizikleta-aparkalekuak ezartzea.
- Beste garraiobide batzuei buruzko informazio-sistemak ezartzea; adibidez, trenetan autobusei buruzko informazioa ematea, eta alderantziz.

Bizikletak

- Bizikleta-erabiltzaileen elkarteen laguntzaz, erabiltzaileei informazioa eta aholkuak ematea, bizikleta garraiobide alternatibotzat erabil dezaten. Ibilbideen, bizikletaren mantentze-lanak, bide-segurtasuna, etab. barne.
- Bizikleta-erabiltzaileen elkarteei lanera joateko bizikleta erabiltzeari buruzko materiala argitaratzen laguntzea.
- Europako Mugikortasunaren Astean lanera bizikletan doazen pertsonei gosaria eskaintzea.
- Ikastetxeetan bizikleta-aparkalekuak ipin ditzatela bultzatzea eta Mugikortasunaren Astean inauguratzea.
- "Ikastolara bizikletan" kanpaina antolatzea.



"Euskal Udalerriak autorik gabe!" 2003





Oinez bizitzeko kaleak sortzea

- Auzokideei kaleak guztiontzat erabilgarriagoak izan daitezen zer hobetu nahi duten adierazteko agiria egiteko gonbita egitea.
- “*Altxorraren bila*” antolatzea, hurrei hiria ezagutzen laguntzeko.
- Ibilgailuak 30 km/h-ko abiaduran ibiltzeko eremuak ezartzea.
- Ikastetxeetatik hurbil dauden errepideetan zirkulazioa etetea.
- Eskolara oinez doazen hurrei sariak ematea.
- Bilguneak antolatzea, gurasoek hurrak han utzi eta handik ikastetxera monitore edota pailazoen laguntzaz oinez joan daitezen.

Automobilaren erabilera arduratsua

- Abiadura-muga errespetatzen ez den tokiak eta istripu gehien izaten diren tokiak markatuta dituen mapak argitara ematea.
- Ibilgailuaren Erabilera Arduratsua sustatzea eta autoa partekatzeko sistemak aurkeztea.
- Hirian autoan beste batzuekin erabiltzeko programarik ez badago, Europako Mugikortasunaren Astean inkesta bat egitea, sistema hori erabiltzeko prest zein dagoen jakiteko.
- Ibilgailu garbi berriek ingurumenari eragiten dioten inpaktuari buruzko eztabaidak sustatzea.
- Fabrikatzaileei kontsumo baxuko ibilgailuekin frogapenak egin ditzatela eskatzea.
- Abiadurak galgatze-gaitasunean duen eragina azaltzea.

Mugikortasuna kudeatzea

- Garraiobide intermodalen mapak egitea; bizikletaz egiteko bideak, garraiobide publikoen geltokiak, bizikletak aparkatzeko lekuak, oinezkoentzako pasabideak, etab. erakutsiko dituzte.
- Enpresetara, eskoletara eta abarretara iristeko gidak egitea.
- “*Ni bizikletaz/oinez/garraiobide publikoetan joaten naiz lanera*” aldarrikatuko duen hiriko pertsona ezagun batek esku hartzea.



“Herrian, autorik gabe” antolatzeko egin daitezkeen jarduerak

Mugikortasuna eta osasuna

- Aireari eta zaratari buruzko erakusketa antolatzeko, Airearen Kalitatea Kontrolatzeko Sarea, Energia eta/edo Ingurumena Kudeatzeko Agentzia eta zaratari buruzko informazio- eta dokumentazio-zentroetan informazioa eskatzea.
- Erakunde egokiei (osasun-mutualitateak, etab.) jarduera fisikoak osasunari eragiten dizkion onurei, osasun-arriskuei eta jarduera-ekinak eragiten dituen kalteei, eta jarduera fisikoak egunerokotasunean sartzeari buruzko informazioa eman dezaten eskatzea.
- Garraioak osasunean eragiten dituen ondorio negatiboak nabarmen ditzaten medikuekin mahai-inguru bat antolatzea.
- Kirol-elkarteei, enpresei, eskolei eta abarri lehiaketetan, lasterketetan eta bestelako jardueretan parte hartzeko eskatzea.

Neurtzea

Jardunaldiaren eragina eta herritar eta eragileen gogobetetze-maila ebaluatu ahal izateko, neurketa-ekintzak egin behar dira.

Parametro hauek neurtu behar dira nagusiki:

- **Ingurumena:** zarata-maila eta airearen kalitatea (CO₂-aren emisioak, adibidez) egun horretan egoera normalean eta baldintza berdinetan neurtu beharrekoak dira.
- **Zirkulazioa:** udalerrietara sartzen den ibilgailu-kopurua, bide jakin batzuetako batez besteko intentsitatea eta zirkulazio-mailarekin lotuta dauden beste zenbait alderdi.
- **Garraio publikoa:** erabilitako txartel-kopurua, garraio publikoetan zenbat bidaia gehiago egin diren, etab.
- **Herritarren iritzia:** egunaren berri duten ala ez, parte-hartzea, onarpen-maila, etab.
- **Beste zenbait:** Hautatutako ekintzen arabera, neurketa-parametro garrantzitsuak definitu behar dira.

“Euskal Udalerriak autorik gabe!” 2003





euskal udalerrak mugikortasun
iraunkorraren bidean

“Herrian, autorik gabe” ospatutako udaletako harremanetarako datuak

Udalerriak	Udal arduraduna	Telefonoa	Helbide elektronikoa
Alonsotegi	Aitor Santisteban /Sandra Orobio	944860030	urb2@euskalnet.net
Agurain	M ^a Eugenia Ramos	945300155	dpto.mediacion@grupovadillo.com
Amurrio	Noemi Llorente	945891161	ayto.nlorente@telefonica.net
Andoain	Ramón Varela López	943300830	andoain@udal.gipuzkoa.net
Anoeta	Teresa Soto Bermejo	943651200	anoeta@udal.gipuzkoa.net
Arrasate	Rafa Ugarte	943790900	ingurugiro@arrasate-mondragon.net
Arantzazu			
Areatza			
Artea			
Dima	Arratiako Udalen Mankomunitatea	946736088	mank.arratia@bizkaia.org
Igorre			
Lemoa			
Zeanuri			
Arrieta	Carlos Laucirica	946153065	claucirica.arrieta@bizkaia.org
Astigarraga	Nerea Ollokiegi	943335050	ingurugiro@astigarraga.net
Azpeitia	Izaskun Zeziaga	943157070	agenda21@azpeitia-azkoitia.net
Balmaseda	Itziar Vitorica	946800000	otecnica@balmaseda.net
Bakio	Miren Gallo	946194001	miren.bakio@bizkaia.org
Barakaldo	Prudencio Loureiro	944789141	ploureiro@barakaldo.org

“Herrian, autorik gabe” ospatutako udaletako harremanetarako datuak

Udalerririk	Udal arduraduna	Telefonoa	Helbide elektronikoa
Beasain	Jose Antonio Ibaibarriaga	943028060	udala@beasain.net
Deba			
Eibar			
Elgoibar			
Ermua			
Mallabia	Debegesa (Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea) Aitziber Kortazar	943820179	aitziber@debegesa.com
Mendaro			
Mutriku			
Soraluze			
Bilbo	Fernando González Vara Carmen San Emeterio	944204623	circulacion@ayto.bilbao.net
Derio	Jon Argatxa	944543435	
Donostia	Amaia Agirre	943481449	Ota_Auxiliar1@donostia.org
Fruiz	Anartz Izagirre	946153210	aizagirre.fruiz@bizkaia.org
Gamiz-Fika	Edurne Alegria	946153114	emonasterio.gamiz-fika@bizkaia.org
Gasteiz	Mónica Ibarondo	945162696	mibarondo@vitoria-gasteiz.org
Gatika	Aitor Basterretxea	946151201	aitor.basterretxea@gatika.net
Getxo	Josu Ateca	944890229	jateca@getxo.net
Gordexola	Esther Herrero/Iratxe Larrucea	946798002	desarrollo@gordexola.net
Laudio	Ibon Lazkano	944034800	i.lazkano@laudiokoudala.net
Laukiz	Javier Santos	946151051	laukiz@laukiz.net
Legazpi	Inma Emparanza	943725829	iemparanza@uggasa.com
Maruri-Jatabe	M ^a Nieves Fernandez	946742253	euskara.maruri@maruri-jatabe.net





euskal udalerrriak mugikortasun
iraunkorren bidean

Udalerrriak	Udal arduraduna	Telefonoa	Helbide elektronikoa
Meñaka	Isabel Ibarzabal	946742101	iibarzabal.menaka@bizkaia.org
Mungia	Eukene Guarrotxena	946741516	eukene@consorciodeaguas.com
Muskiz	Patricia Morales	946706000	p.morales.alonso@kzguna.net
Oiartzun	Carlos Aseginolaza	943490377	mendi.oartzun@udal.gipuzkoa.net
Portugalete	Concepción Rodríguez Múgica	944729257	medioambiente@portugalete.org
Sondika	Andoni Larizgoitia Jauregi	944535172	arquitecto@sondikakoudala.euskalnet.net
Tolosa	Antton Lekuona/Koro Garcia	943654466	ingurugiro@tolosakoudala.net
Usurbil	Begoña Rodríguez	943371990	zerbitzuak.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Zarautz	Eli Zuriarrain	943392229	agenda21@zarautz.org

